



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA OHARRA

Gazte txartelak 600.000 bidaiaria baino gehiagorekin itxi du urtea

- **Garraio Partzuergoak Bizkaian erroldatutako 26 urtetik beherako gazteentzat sortutako txartelak, jada Metro Bilbao, Bizkaibus eta Bilbobusen erabil daitekeenak (Artxandako Funikularrean barne), 603.889 bidaiaria zenbatu zituen martxan daraman 6 hilabetetik beherako tartean, 2014ko uztailaren 21etik abenduaren 31ra bitartean, hain zuzen ere.**
- **%50eko beherapena eskaintzen du ohiko txartelekin alderatuta eta %20-30 bitartekoa creditrans tarifekin alderatuta.**
- **Momentu honetan Gazte profila aktibatuta duten 8.200 Barik daude Bizkaian.**

Bilbon, 2015eko otsailaren 13an

Gazte txartelaren gainean egindako lehenengo azterketaren arabera, martxan daramatzen lehen hileetan 603.889 bidaiarik erabili dute. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (CTB) 2014ko uztailean sortu zuen Bizkaian erroldatutako 26 urtetik beherakoentzako txartel hori Metro Bilbao eta Bizkaibusen erabiltzeko zen hasiera batean. Txartelak %50eko beherapena eskaintzen du ohiko txartelekin alderatuta eta %20-30 bitartekoa creditrans tarifekin alderatuta.

2014ko datuek Bizkaibusen eta Metro Bilbaoen uztailaren 21etik abenduaren 31ra zenbatutako bidaiariei egiten diete erreferentzia, Bilbobus pasa den urtarrilean batu baitzen Gazte sistemara. Bizkaibus foru markarekin aritzen diren hiri arteko autobusen linea desberdinetan 391.599 aldiz erabili zen gazte txartel berria. Metro Bilbaon 212.290 aldiz baliozkotu zen txartela.

Urriaren eta azaroaren erabili zen gehien: 163.663 eta 196.271 bidaiarik erabili zuten, hurrenez hurren. Funtzionamenduan zegoen lehenengo hilabeteetan lortutako zifrak baino askoz altuagoak dira horiek. Uztaileko eta abuztuko oporrak asko nabaritu ziren erabiltzaileen zifran, Gazte txartela erabiltzen duten bezero gehienak ikasleak baitira. Irailean ikasturtea hastearekin batera hasi zen Gazte txartela merkatuko kuota irabazten, atxikitako eragileen tituluen artean.

Gazte txartela Metro Bilbao, Bizkaibus eta Bilbobusen erabil daiteke orain (Artxandako Funikularrean barne) pertsonalizatutako Barik txartelaren formatuan (argazkiduna). Erabiltzailea Metroren herritarrentzako arreta bulego batean edo CTBren informazio bulegoetan (San Mames geltoki intermodalekoan) edo Bilbobusenetan altan eman ostean, metroko makina automatikoetan, Bizkaibus edo Bilbobusen kabinetan,



bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

estankoetan, kioskoetan edo tokiko ohiko dendetan txartela kargatu ondoren beherapenak aprobetxatzen has daiteke. Erosten denetik hasita 30 eguneko epean bidaiatu daiteke txartelarekin.

Txartel berrien prezioa desberdina da erabiltzaileak zeharkatuko dituen eremuen arabera. Horrela, 29, 34, 39, 52 edo 70 euro ordaindu beharko ditu Bizkaiko 1, 2, 3, 4 edo 5 eremu aukeratzen baditu. Gazte Bizkaibus, Gazte Metro eta Gazte Bilbao txartel monomodalak dira, hau da, aukeratuta garraio motarako bakarrik balio dute.

Gazte bezeroen kopurua haziz joan da pasa den urteko uztailean funtzionatzen hasi zenetik. Momentu honetan Gazte profila aktibatuta duten 8.200 Barik txartel daude Bizkaian.

GAZTE BIDAIARIAK 2014AN

	2014-uzt	2014-abu	2014-ira	2014-urr	2014-aza	2014-abe	GUZTIRA
METRO BILBAO	675	6.304	25.915	54.807	64.053	60.536	212.290
BIZKAIBUS	95	1.163	75.671	108.856	132.218	73.596	391.599

Argibide gehiago

<http://www.ctb.eus/es/mensual-gazte-mb-y-mensual-gazte-bizkaibus>